

1992-II-28

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren egoitzan egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea 1992ko otsailaren 28an. Goizeko hamarretan bildu dira, J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oiarçabal, F. Ondarra, J. San Martin, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante euskaltzainak; J.L. Lizundia idazkariordea, eta dagozkienetan M. Azkarate LEF azpibatzerdearen arduraduna eta M. Zalbide Hiztegiagintza batzordeko idazkaria.

Tx. Peillenek ezin etorria adierazi du.

Urtarrileko batzar-agiria onartu da zenbait ohar jaso ondoren.

J.M. Zumalabe euskaltzain urgazlearen hilberria aipatu da eta J.M. Lekuonak eginen du datorren batzarrean haren biziaren eta lanen aipamena.

Euskara Batuko batzardea

Aurrez ikusitako zenbakien idazkeraz azken puntu batzuk zehaztu ondoren, zenbakien deklinabidearen txostena ikusi da. Aurkeztutako proposamenak zenbakien bi atal ukitzen ditu: Izena eta zenbatzailea. *Hiru* eta *lau* zenbakiek agertzen dute konplexotasunik gehiena eta horiei buruz eman ditu batzardeak deklinabidearen taula osoak. Jasotako oharak aipatu dira. Proposatutako zenbatzaileen atala onartu da beraz, erabakiaren testua txostenean azalduko delarik.

Aditegia

Euskaltzaindiaren antolamenduari buruz oraintxe egindako aditegiak emandako aholkuen berri eman da. Hemezortzi puntutan azaltzen dira ikusitako akatsak. Ondoko hilabeteetan eman beharreko urratsen gomendioa ere egiten da kronograman. Nola nahi ere, Euskaltzaindiaren egitekoa da dagozkion erabakiak hartzea, eta banatutako txostena lan luze baten laburpena denez, argibideak euskaltzain bakoitzari igortzea erabaki da, hurrengo batzarrean eztabaidatzen hasteko.

Kanpo-izendapenak

Orioko Udalak bertako euskara aztertzeke egina duen beka-deialdi baten epaimahairako ordezkaria eskatzen du. P. Altuna joango da, eta agian ez dela Erretereriako Udalarekin bezala gertatuko, esan du; Mitxelena sarirako iaz euren eskariz Euskaltzaindiak izendatu eta ez zuela inoiz jakin epaimahaia noiz biltzekoa zen, egunkarietan besterik esan bada ere. Eta aurten berriro Udaletxera deitu arren ez diotela argitu arazoa.

Euskuartekoak

Emakumearen Euskal Erakundeak bidalitako gutuna jaso da, euskaltzain hutsunea betetzeko emakume baten izena kontuan edukitzea eskatuz. Euskaltzainburuak urtarriaren 16an aditzera eman zion Emakundeko zuzendariari nola egiten diren euskaltzainen hautaketak, eta hiru euskaltzainek aurkeztua dute emakume bat kasu honetan, izenak emateko epeak irekirik dirauelarik datorren martxoko batzarrera arte.

Bilboko egoitzako garraioetarako furgoneta baten beharra agertu du diruzainak. Dagoen mugimendua kontuan harturik oraingo kostuen kopurua alde bate-tik, eta furgonetarekin legokeena, bestetik, parekatu ditu, banatutako orri baten bidez jakinaraziz. Eztatbaida moduko elkarrizketa baten ondoren onartua izan da eskaria.

Nafarroako Kontuetako Ganbararen arduradunak erakunde horren izena euskaraz nola esan behar den galdetzen du. Orain arte nola erabilia izan den erantzun zaio, beste pare bat hitzen berri ere emanez. P. Salaburuk ez du parte hartu nahi izan arazo horretan.

Euskal Soziologi Elkarteko idazkariaren gutuna hartu da Bilbotik elkartearen izenburuko euskal itzulpena zuzen dagoen galdetzen. Bere egunean esandakoaren arabera, ongi itzulia dela erantzungo zaio.

Europako hizkuntza ttipienen alde orain arte hartuak izan diren erabakiak gogoraraziz J.M. Bandresen Frantziari bere babesa eskatzen dion izkribuaren berri eman da.

Seul-go Unibertsitateko irakasle den Noh jaunaren gutuna irakurri da, Euskal Herrian egon den denboran Euskaltzaindiak emandako erraztasunengatik esker-rak ematen.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

BATZAR OROKORRA

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 1992.eko otsailaren 28an, arratsaldeko 4etan egiten du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra. Bildu dira, goizeko euskaltzainez gain, salbu: J. San Martin eta I. Sarasola; M. Azkarate, R. Badiola,

F. Barrenengoa, A. Eguzkitza, J.G. Etxebarria, B. Gandiaga, X. Gereño, J.L. Goi-coetxea, X. Kintana, J.L. Lizundia, J. Oleaga, K. Rotaetxe, A. Urrutia, M. Zalbide eta J.J. Zearreta urgazleak.

Goizeko bilkuran tratatutako gaien berri ematen du J.M. Satrustegi idazkari-ak, azpimarragarrienak hauek izanik: Euskara Batuko batzordeak proposaturiko *zenbakien idazkeraz* azken puntu batzuk zehaztu ondoren, *zenbakien deklinabi-dearen* txostena ikusi eta onartu da; Euskaltzaindiari egindako auditoriak eman-dako aholkuen berri eman da; Orioko Udalak bertako euskara aztertzeko egina duen beka deialdi epaimahaikide Patxi Altuna izendatu da; Nafarroako “Cámara de Comptos” erakundearen euskal ordaina *Kontuetako Ganbara* birretsi da.

Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa azpibatzaidearen azalpena ematen du A. Sagarna idazkariak 1987-1991 bitartean eginiko lanen berri ematen duen txosten bat aurkeztu du. Bertan, Hiztegitantza Batzaidearen barneko azpi-batzaide hori nola sortu zen eta izan dituen helburuak zeintzuk izan diren eta nola bete dituen esaten da. XX. mendeko euskara idatzian erabilitako lexikoa era adierazgarrian erreprezentatzen duen 2.000.000 testu-hitzeko corpus baten bilketa, hustuketa eta lematizazioa izan da xede nagusia. Lan hau bukatutzat ematen da eta lortutako emaitzez Hiztegi Batuko azpibatzaide berria baliatuko da. Euskaltzainburuak egindako lanengatik eskerrik beroenak ematen dizkie azpibatzaide kide guztiei.

“Ameriketara euskal testu zaharrak Arantzazuko Ama Birjinari buruz” izeneko bere txandako txostena Aita L. Villasantek irakurri du gero. Lima-n (Perú) Aita Juan de Ayllon-ek 1647. urtean inprimatutako liburuaz aritu da. Liburu hau bibliografieta ageri agertzen da, baina ez beti zuzen, eta gaur topa ezina da. Arantzazuko fraideek berriki lortu dute Lima-ko frantziskotarren komentuko biblioteka gordetzen den alearen fotokopia. Bertan bada euskal hitz eta euskal pasarterik franko. Berorien azalpena egin du txostengileak. Aita Villasantek uste du Lima-n garai hartan zegoen euskal koloniar omenaldi eta estimu-aitorpena izan nahi duela liburuak.

Azkenik, “Ochoa de Arinen *Doctrina Christianaren* (1713) hizkeraren laburpena” izeneko txostena irakurtzen du P. Altuna jaunak. Autore honen zerbait berezitasun eskaini ditu txostengileak, hots, ‘mendebaldeko azken hiru mende hauetako hizkera ezagutu eta ikertu nahi duenarentzat Ochoa de Arin ordiziarra dugu nahitaezko ispilu eta iturburu’.

Txosten bakoitzaren ondoren elkarrizketa izan da, egile eta entzuleen artean, iritzi onuragarriak sortuz.

Eta besterik gabe, bukatzen da batzarrea.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
idazkaria